

“GERNIKA-LUMOKO KULTUR ONDAREA LANGAI”:

Unitate didaktikoak eta digitalizazioa-2013



AURKIBIDEA:

- 1.- EGITASMOAREN NONDIK NORAKOAK**
- 2.-HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 5.- KRONOGRAMA**
- 6.- AURREKONTUA**

ERANSKINA: Gernikazarra Historia Taldea eta Gernika-Lumoko Udalaren arteko hitzarmena.



1.- EGITASMOAREN NONDIK NORAKOAK

Beste kasu batzuetan legez, Euskara Batzordean sasoi baten mahai gaineratutako beharizanetan dauka jatorria egitasmo honek, baina ezin ahaztu lotura zuzena daukala baita indarrean daukagun Euskara Biziberritzeko Gernika-Lumoko Plan Estrategikoarekin (2009-2012) eta bertan jasotzen diren ekintza proposamenekin. Aipatu Plan Estrategikoaren luzapena erabakiko da 2013ko urtarrilaren 30eako Osoko Bilkuran.

Lehenengo Plan Estrategikoa 2003an onartu zenerako corpusarena landuta geneukan zerbait eta Planaren ildotik ere hainbat arlorako argitalpenak egokitu ditugu ordutik ona (batzuk geuk eta beste asko eragile desberdinekin elkarlanean), 2010ean martxan jarri zen webgunean eskuragarri daudenak:

a).- Haurrei eta familiei begirakoak:

- IDAZLAN KOADERNOAK (LHkoak, 2002-2009)
- BUSTURIALDEKO JOLASAK (2003)

b).- Euskara ez dakitenentzat eratutakoak:

- “ONGI ETORRIA” KANPOTARREI (zerbitzu gida. 2007)
- ESKUKO HIZTEGIA (2008)

c).- Gazteei begirakoak:

- IDAZLAN KOADERNOAK (DBH/Batzilergokoak, 2002-2009)
- Urtean behingo KOMIKI ARGITALPENAK (Saure Editorialarekin elkarlanean)

d).- Geure inguruko euskara:

- GEURE BERBAK (2002)
- BUSTURIALDEKO ESAKERAK (2003)
- BERBETEARI GATZA ETA PIPERRA (2002)
- EROSKETAK EGITEKO HIZTEGITXOA (2007)
- IRAINAK, Busturialdekoak (2004)
- IDATZIAK I (konbiteak, zorion-agurrak, oharrak...) – 2005ean bizkaieratua
- IDATZIAK II (etxejabeeen komunitadeetako agiriak) – 2005ean bizkaieratua
- GERNIKA-LUMOKO TOPONIMIA MAPA
- ETXEBIZITZAREN ERABILERA ETA MANTENTZE ESTILO-LIBURUA
- TRAMITEEN ESKULIBURUA



e).- Literatura, historia eta ohitura arlokoak:

- GURE OHITURAK I, NEGUAREN BIHOTZA, 1987
- GURE OHITURAK II, 1988
- GERNIKA-LUMO KALERIK-KALE (2005)
- ERRENTERIA auzoko historia (2006)
- GERNIKA-LUMOKO URTAROAK (Elai-Alai dantza taldea) - 2008
- GERNIKA-LUMO 1876-1937 (Sarrera historikoa) - 2008
- GERNIKAR EMAKUMEAK XX. MENDEAN - 2007

Finkaturiko jokabide horri eutsiz, 2009an Gernikazarra Historia Taldearekin hitzarmena sinatu genuen unitate didaktikoak eratu asmoz, Hezkuntza esparruan ikusten genuen hutsunea betetzearren; helburu nagusia, DBHko ikasleei geure udalerriari buruzko historiaren isla ematea zenbait gairen inguruan; zeharbidetik, euskararen erabilpena areagotzeko tresnak eskaintzea eta, kasu honetan, irakaskuntzan. Lau urterako planteamendua egin eta hiru urtetan (2009tik 2011ra) sei unitate hauek argitaratu dira, bi urteko:

- (1) Komunikabideak erdi aroan
- (2) Herri sinesmenak eta ohiturak. Emakumea herri tradizioan.
- (3) “Garraiobideak” ertaroan.
- (4) “Gizarte Egituraketa eta egitura ekonomikoa” ertaroan.
- (5) Erdi aroko gizarte egitura Gernika-Lumon
- (6) Antolaketa politikoa eta adm-boia (Gernika-Lumo)

Honez gero, Gernikazarra Taldeak 2011 urte bukaerarako lana osatuta zeukan. Beraz, 2012n azken bi unitateak argitaratzea espero genuen arren, diru partida eskasak eta 2013rako atzeratu behar izan da azken bi unitateak argitaratzea:

- (7) Erdi aroko ekonomia Gernika-Lumon
- (8) Erdi aroko arte ondarea Gernika-Lumon

Unitate didaktiko horiek guztiak ere webgunean jarriko dira argitaratu ahala.

2.-HELBURUAK

EBPNren itzalean ekinda, hona hemen 2013ko Kudeaketa Planean finkatutako helburu, neurri eta ekintzak, egitasmo honekin lotura dutenak:

- **Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura**

- **Esparrua:**

8. Kulturgintza

- **Helburua:**

8.4. Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

- **Neurria:**

8.4.2. EKITALDIAK ANTOLATU

- **Ekintza:**

8.4.2.3. Bertako azpieuskalki, toponimia eta ohiturei lotuta eskualdeko beste udalerriekin elkarlanean jolas eta material didaktikoa sortzeko aukerak aztertu (arloan honetan landu diren beste esperientzia batzuk aztertu: Debarroa eta landa garapena...).

- **Azpiekintzak (honi loturikoak):**

- Udalerriko ohitura, historia eta gertaerei buruzko argitalpen-bilduma gorpuztu

- Udalaren menpeko kultur guneeetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea

- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Unitate didaktikoak eratzeko (ikus I. eranskina: hitzarmena):

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lana (HNT I)
- Gernikazarra Historia Taldea: lau kideko taldea.

Argitalpenetarako:

- Gernikazarra Historia Taldea (edukiak, testuak eta argazkiak).
- Euskara Zerbitzua (testuak doitu, maketazioa egin eta inprenta lanetarako ardura).

Diru baliabideak: Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen partidetakoak, Plan Estrategikoarekin lotutako 2013ko Kudeaketa Plana garatzearren aintzat hartutakoak.

4.- XEDE TALDEA - ADIERAZLEAK

Xede taldea:

Egitasmo honen xede taldea zehazterakoan, gure udalerriko historiari buruzko informazioa doakion edonor hartuko genuke. Euskararen erabilera esparruan ere pausuak emateko beta emango digu material honek, historia arloko terminologia berezian murgildu eta gure udalerriko ohitura eta pasadizoen berri izateko bideak irekita.

Unitate didaktikoak, bereziki, eskualde mailan DBHko ikasleei zuzendu asmoz eratuko diren arren, eurretako edukia herri mailan hedatzeko moduak jorratuko dira.

Adierazleak:

Adierazleei dagokienean, aurtengoan balorazio kuantitatiboa taxutzekoak izango ditugu: unitate didaktikoen ale kopurua eta jasotzaile kopurua.

Osatu diren 7. eta 8. unitate didaktikoei eta hauen edukiei ahalik eta zabalkunderik handiena ematen saiatuko bagara ere, eskualdeko eta udalerri mailako komunikabideekin elkarlanean aritu behar izango gara hurrengo fase batean. Orduan, neurketa berezia egin beharko genuke Hitza egunkariaren bitartez, eskaintako edukien berri jaso dutenen portzentajeak izateko, esaterako.

5.- KRONOGRAMA

Jarduerak	Mart	Apir	Maia	Ekai	Uzt	Irai	Urr	Azar
Koordinazio batzarrak								
7. eta 8. Unitate didaktikoak (maketazioa eta inprenta lanak)								
Argitalpenak inprentara								
7. eta 8. unitate didaktikoak zabalkundea								

6.- AURREKONTUA

Kontzeptuak	Kopuruak
Argitaratzea	1.600
GUZTIRA	1.600

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean.

Espereanza Uriarte Erdaide
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Tek.

.ERANSKINA

**GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA,
UDALERRIKO HISTORIARI BURUZKO
UNITATE DIDAKTIKOAK ERATZEA
HELBURU**



LANKIDETZA-HITZARMENA

SINATZAILEAK:

GERNIKA-LUMOKO
UDALA

GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA

Gernika-Lumon, 2008ko-renan.

BILDURIK

Batetik Jose Maria Gorroño Etxebarrieta jauna, Gernika-Lumoko Udaleko (IFK – P-4805500-H) Alkate jauna.

Bestetik jauna, Gernikazarra Historia Taldearen ordezkari modura, IFK -

Sinatzaileek elkarri aitortzen diote eskumen juridiko nahikoa agiri hau izenpetzeko, eta bakoitza bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez.

AZALTZEN DUTE:



I.- Udalaren asmoa dela udalerrian euskara normalizatzeko ekintzak indartu eta bultzatzea. Asmo horrek kezkatutik, Gernika-Lumoko Udalak Euskara Zerbitzua sortu zuen eta horri esker hainbat aurrerapauso eman dira udalerrian euskara sustatzeko egitasmo orokorra abian jartzearen. Proiektu horretan oinarriturik, toponimoak eta hiriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea lehentasunezko zatia du Gernika-Lumoko Udalak.

II.- Gernika-Lumoko Udalak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren arabera eratutako 2008ko Kudeaketa Planean honako aurreikuspenak jasotzen dira:

- Helburu estrategikoa: 3.a - Euskararen elikadura
 - Esparrua: 3.c - Liburugintza
 - 3.c.04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin
- Neurria: Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkartearen artean.

Lehen tasuna	LIBURUGINTZA	EKINTZAK	ERAGILEAK
3.c.04/1 Erabatekoa	Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu		Gaztedia / Kultura Eusk. Zerbitzua Eusko Ikaskuntza Saure Edit.
3.c.04/001 Erabatekoa	Udalerriko ohitura, historia eta gertaerei buruzko argitalpen-bilduma gorpuztu (Gernikazarra Elkartearekin hitzarmena : unitate didaktikoak...)		Eusk. Zerb. Gernikazarra

III.- Gernikazarra Historia Taldeak, udalerriko pasadizo, gertaera, pertsonaia eta historian zeharreko sasoi bereziei buruzko ikerketak burutzea du helburu sortu zenetik, horren zabalkunderako ahalegina ere aipagarria izanik, zenbait artikulua eta argitalpen lekuko.

IV.- Sinatzaileen artean urte luzeetan izandako elkarlanari eutsiz eta arestian esandakoa kontuan hartuta, alde biek lankidetzaz hitzarmena sinatzea erabaki dute, ondoko klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- EPEA.

Honako hitzarmena, indarrean egongo da sinatuko den egunetik eta 2011ko abenduaren 31ra arte.

BIGARRENA.- Gernikazara Historia Taldeak hartzen dituen konpromisoak:

- 1- Gernikazarra Historia Taldeak zortzi unitate didaktiko eratuko ditu 1. eranskinean agertzen diren gaiei buruz, bakoitzari atxikitako edukiarekin. Horretarako, hurrengo kronogramari jarraituko zaio:
 - 2009 urtean:
 - “Herri sinesmenak eta ohiturak (ertaroko gizon eta emakumeen pentasmoldearen isla)”.
 - “Kokapen geografikoa – Ingurua” ertaroan.
 - 2010 urtean:
 - “Garraiobideak” ertaroan.
 - “Gizarte Egituraketa” ertaroan eta “Egitura ekonomikoa” ertaroan.
 - 2011 urtean:
 - Gernikako hiria ertaroan (egituraketa politikoa).
 - “Arteak eta eraikin esanguratsuak” (erromanikoa, gotikoa, herri arkitektura,...).



- 2- Aipatu unitate didaktikoak taxutzeko, edukiaz/testuaz gain, irudiak, argazkiak eta bestelako apaingarrien bilketa egingo du Gernikazarra Historia Taldeak. Unitate didaktikoak 12 eta 18 orrialde bitartekoak izango dira.
- 3- Hitzarmenarekin loturiko zernahiri buruzko koordinazioa landu eta Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean aritzearren, Gernikazarra Historia Taldeak koordinatzaile-zuzendaria izendatuko du, jarraipen-bilkuretan parte hartuko duena.

Gernikazarra Historia Taldeak eta Udaleko Euskara Arloko arduradunek jarraipenerako egingo dituzten bilkuretan, egokituko diren unitate didaktikoen argitalpenei buruzko alde formalak adostuko dira (formatoa, maketazioa, ...).

HIRUGARRENA.- Gernika-Lumoko UDALAREN KONPROMISOAK.

Gernika-Lumoko udalak, Gernikazarra Historia Taldeak burutuko duen lanaren truke honako konpromisoak hartzen ditu:

1.- Adostutako lan proposamena (hitzarmenaren eranskina) burutzeko Gernikazarra Historia taldeak diru laguntza jasoko du erabiliko dituen giza eta material baliabideengatik.

2.- 1. eranskineko lan-proposamenean jasotako unitate didaktikoak argitaratzeko konpromisoa, Gernikazarra Historia Taldeak borobildu eta argitalpenaren alde formalak zehaztu ondorengo hiru hilabeteetan.

3.- Gernikazarra Historia Taldearena izango da egindako lanaren jabego intelektuala, horrek legeak dakartzan betebeharrei jarraiki jokatuko du Gernika-Lumoko Udalak. Unitate didaktikoen argitalpenetako kredituetan argi jarriko da egilea Gernikazarra Historia Taldea dela eta babeslea Gernika-Lumoko Udaleko Euskara



Saila.

4.- Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Sailak Gernikazarra Historia Taldearekin elkarlanean jokatu du uneoro, Udaleko Euskara Zerbitzuko Teknikariak bitarteko. Horretarako, hiru hilabeterik behingo bilkurak egingo dira hitzarmena indarrean egongo den urte bakoitzeko. Lehenengoa 2008ko abenduan.

4.- Hitzarmenaren helburu den argitalpena dela-eta (toponimoen liburua), Gernika-Lumoko Udala eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanaren fruitu dela azpimarratu da, toponimoen bilketa lanean parte hartu duten beste erakunde batzuk aipatzea ere salbu (Deiker Institutua, Busturialden Euskaraz Bizi Elkartea). Argitalpen horren kostua Gernika-Lumoko Udalak bere bizkar hartuko du.

LAUGARRENA.- Gernika-Lumoko Udalaren konpromiso ekonomikoa bete dadin, honako era honetara egingo da:

- Gernika-Lumoko Udalak Gernikazarra Historia taldeari 600 €ko dirulaguntza emango dio moldatuko duen unitate didaktiko bakoitzeko (guztira: 3.600 €, sei unitate didaktiko bider 600 €). 2009ko unitate didaktikoekin loturiko diru laguntza, hitzarmena sinatu eta jarraian emango zaio (1.200 €).
- Bestalde, Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Sailak konpromisoa hartuko du urte bakoitzeko aurrekontuan partida berezi bat aurreikusteko unitate didaktikoen argitalpenetarako. proposamena gauzatzeko taxutu behar diren kronogramaren arabera. Kontuan harturik argitalpen duinak eta erakargarriak ateratzea dela helburua eta batik bat DBH I. zikloko ikasleei zuzenduak izango direla (500 ale), unitate didaktiko bakoitza argitaratzeko erabiliko den gutxieneko kopurua 1.500 €koa izango da.



BOSGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA

Honako hitzarmena lehen klausulan ezarritako epea agortu ondoren modu naturalean bukatuko da.

Hitzarmena indarrean dagoela bertan behera geratuko da sinatzaileen adostasunez, bakoitzari dagokionean hitzarmenean ezarritako baldintzak ez betetzea bitarteko.

Hitzarmena baliogabetzeko adostasunik ezean, sinatzaile biek hartzen duten konpromisoa Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren Arbitraia zerbitzura jotzeko eta honen epaia errespetatzeko.

Eta hitzarmen honek dioenarekin ados daudela, bi alderdiek, hitzarmenaren hiru ale sinatu dute arestian esandako toki eta egunean.

JOSE MARIA GORROÑO ETXEBARRIETA
jauna,

jauna,

Gernika-Lumoko
ALKATE-UDALBURUA.

Gernikazarra Historia Taldearen
izenean

IDOIA FERNANDEZ ANTIA

Jon Goikoetxea Etxebarria

Euskara Arloko Zinegotzia

Udal Idazkaria



Hitzarmenaren eranskina (Gernikazarrak aurkeztua)

Eskema orokorrari egindako ekarpenak

2008ko uztailaren 23an

- Egitura orokorrean, 6. eta 7. puntuak aldatu. Seigarrenean, egitura politikoaz arituko ginateke, nola antolatzen zen Gernika, foruak,... eta zazpigarrenean eraikinetaz aritu gaitezke, bertan seigarren puntutik eratorriko eraikinak ere kontuan hartuta. Puntu berri baten sarrera proposatzen dugu (8.a), erlijio katolikoaren indarra ahaztu barik (hori nahiko argi geratzen da eta beste puntu guztietan duen presentziarekin), beste sinismenei leku egin nahi diegu, gaur arte iraun duten ohiturak aipatuz, jatorria,...
- - 1.- Herri sinesmenak eta ohiturak.
 - 2.- Kokapen geografikoa, ingurua eta garraiobideak ertaroan.
 - 3.- Gizarte egituraketa eta egitura ekonomikoa ertaroan.
 - 5.- Gernikako hiria
 - 6.- Egitura politikoa
 - 7.- Artea eta eraikin esanguratsuak
 - 8.- Erlijio katolikoaz kanpo, bestelako sinismenak.
- Emakumeen presentzia bermatu beharko litzateke, hau da, zeharka ahalik eta puntu guztietan landu. Izan ere, emakumeek bazuten euren rola (nahiz eta gizonezkoek mugatua), eta ez dugu guk ezkutuan mantendu nahi.